

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Polizia Inspektorearen mailara Igotzeko ikastaroa ireki da Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan

Iruñeko lau udaltzainek bost eremutan zatitutako ikastaroa jasoko dute

Astelehena, 2018.eko irailak 24

Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan gaur goizean izan da Polizia Inspektorearen mailara igotzeko 2018ko ikastaroaren irekiera-ekitaldia; ikastaroa Iruñeko lau udaltzainek egingo dute gaur hasi eta azaroaren amaierara bitarte.

Agustín Gastaminzak, Nafarroako Gobernuko Barneko zuzendari nagusiak,

Jesús Munarrizek, Iruñeko Udaltzaingoaren buruak, eta Izaskun Cibiriainek, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolako zuzendariak, irekitze-ekitaldian parte hartu dute, eta, ikasleei prestakuntza oso bat opatzeaz gain, irakasleei beren lanarengatik eskerrak eman dizkie.

Ikastaroa bost eremutan zatitzen da: polizia eta gizartea, polizia juridikoa eta ikerketakoa, prebentzioa eta poliziaren esku-hartzea, aginterako gaitasunak garatzea eta poliziaren ezagutzak eta trebetasunak.

Halaber, eremu bakoitzean, mota askotariko gaiak jasotzen dira; hala nola, deontologia poliziala, genero-berdintasuna, dibertsitatearen arreta, poliziaren bitartekaritza, poliziaren funtziora aplikaturiko zuzenbidea, herritarren segurtasunerako teknikak, kudeaketarako trebetasunak eta larrialdien agintea edo larrialdiko laguntza-teknikak.



Agintariak eta parte-hartzaileak ikastaroa irekitzeko ekitaldian.